

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

4659

EBAZPENA, 2021eko abuztuaren 2koa, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez agintzen baita «Vivienda y suelo de Euskadi, S.A. / Euskadiko etxebizitza eta lurra, EA» sozietate publikoaren 2021. urterako ordainsarien igoerari buruzko akordio kolektiboa, erregistratu, publikatu eta gordailutzea (hitzarmen-kodearen zenbakia 86100302012017).

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2021eko uztailaren 30ean aurkeztu da REGCONen aipatu akordio kolektiboari dagokion dokumentazioa, dagokion enpresak eta ordezkari sindikalek sinatua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Langileen Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 90.2 artikulua aipatzen duen eskumena lan agintaritza honi dagokio, aintzat hartuta Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 6. artikulua eta Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 10.1.i artikulua (uztailaren 6ko 167/2021 Dekretuak aldatua).

Bigarrena.– Aplikagarri den araudi sustantiboa Hitzarmen eta Akordio Kolektiboak Erregistratzeari eta Gordailutzeari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuan eta EAeko Hitzarmen eta Akordio Kolektiboak Erregistratzeari eta Gordailutzeari buruzko urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuan jaso dago.

Hirugarrena.– Aurkeztu den akordioa inskribagarria da aipatu maiatzaren 28ko 713 /2010 Errege Dekretuaren 2.1.a) artikulua aintzat hartuta. Horrenbestez, inskripzio eskaera eta atxikitako agiriak aztertuta, egiaztatu da eskaerak betetzen dituela legezko baldintzak, (EAeko Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 11ko 1/21 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako txostenak barne), eta, beraz, EAeko Hitzarmen eta Akordio Kolektiboak Erregistratzeari eta Gordailutzeari buruzko urtarrilaren 25eko 9 /2011 Dekretuaren 9. artikulua aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Akordioa Euskadiko Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan inskribatu eta gordailutzeko agintzea, eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.,

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abuztuaren 2a.

Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
ANGEL LAPUENTE MONTORO.

2021eko irailaren 7a, asteartea

2021. URTERAKO ORDAINSARIEN IGOERARI BURUZKO AKORDIO
KOLEKTIBOA, «VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A. / EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA
LURRA, EA» SOZINETATE PUBLIKOARENA

«Vivienda y suelo de Euskadi, S.A. / Euskadiko etxebizitza eta lurra, EA» (Visesa) sozietate publikoaren Zuzendaritza Nagusiak eta langileen legezko ordezkariak akordio kolektibo bat adostu dute 2021. urterako langileen ordainsarien inguruan. Hau da akordio horren edukia:

HITZAURREA

Langileen legezko ordezkariak eta Euskadiko Etxebizitza eta Lurzoruaren Zuzendaritza Nagusiak langileen ordainsarien gaia landu dute, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen otsailaren 11ko 1/2021 Legean aurreikusitakoarekin bat etorritik. Lege horrek 19. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak ezartzen ditu (2021eko otsailaren EHAA, 35. zk.).

Lege honek 19. artikuluan 9. apartatua ezartzen duenez, 2021eko urtarrilaren 1ean ordainsariak ezin izango dute % 0,9ko igoera baino handiagoa izan, 2020ko ekitaldian ezarritakoarekin alderatuta.

HAU ADOSTU DUTE:

Lehenengoa eta bakarra.– 2021. urterako soldata igoera osagarria zehaztea eta igoera hori ezartzea.

Aurretik adierazitakoarekin bat etorritik, alderdi sinatzaileek adostu dute 2021. urterako sektore publikoko langileen ordainsarien % 0,9ko lansari-igoera egitea, urtarrilaren 1etik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 1a.